

2. eranskina. Parte-hartzea eta kontuak ematea (PKE) sustatzeko eta baloratzeko tresnaren proposamena

Izateko arrazoia:

PKE arloko praktikak baloratzeko erabilitako eredua oinarri hartuta, eta lortutako aurkikuntzak eta ondorioak aintzat hartuta, honako eredu hau proposatzen da PKE praktikak hobetzeko eta haien kalitatea monitorizatzeko.

Erabilgarritasuna:

Tokiko, estatuko eta nazioarteko Erakunde Humanitarioek partekatzeke sortu da tresna hori.

Diseinua:

Diseinua printzipio hauetan oinarritzen da:

- ✓ Soiltasuna
- ✓ Argitasuna
- ✓ Aplikagarritasuna
- ✓ Fidagarritasuna
- ✓ Monitorizagarritasuna (monitorizatzeko gaitasuna: neurgarria, informagarria, etab.)
- ✓ Erakundeen hausnarketara eta ikaskuntzara bideratua
- ✓ Moldagarria: malgua da aplikazioan eta erabileran

Intsumoak:

Tresnak honako intsumo hauek hartzen ditu kontuan:

1. Nazioartean erreferentzia diren PKE esparruen funtsezko elementuak.
2. Euskal lankidetzaren esparruan PKE arloan dauden praktiken balorazioaren emaitzak.
3. PKE aztertzeko prozesuan parte hartzen duten erakundeen feedbacka.

Parametroak, osagaiak eta elementuak:

Euskal Ekintza Humanitarioaren eremuan egungo PKE praktikak baloratzeko erabiltzen den eskemaren antzekoa erabiliko da.

Gestión

Hiru parametro handitan egituratua dago:

Contexto

1. Kontzeptua
2. Testuingurua
3. Kudeaketa

Concepto

eta horiek, era berean, honako osagai hauetan banatuak daude:

1. Kontzeptua: Parte hartzeko eta kontuak emateko kontzeptu integratua.
2. Testuingurua
 - 2.1 Biztanleen kultura-testuingurua
 - 2.2 Ingurune soziopolitiko eta humanitarioa
 - 2.3 Erakunde humanitarioen kultura-testuingurua
3. Kudeaketa
 - 3.1 Politikak eta estrategiak
 - 3.2 Tresna praktikoak
 - 3.3 Inplikazio instituzionalak

Parametroak, adierazleak eta balorazioa:

Parametroak taula honen arabera baloratuko dira (ikus Excel orria aplikazio azkarrerako).